












Solas egiteko Inuiak

GIDA DIDAKTIKOA



AURKIBIDEA

-  1 ipuina: *Lagunen eskua* (Harremanetan jartzea)
-  2 ipuina: *Modako otzara* (Higienea)
-  3 ipuina: *Letratxoa* (Erronkei aurre egitea)
-  4 ipuina: *Automobilek loditzen dute* (Segurtasuna)
-  5 ipuina: *Harat-honat korrika* (Jarduera eta atsedena)
-  6 ipuina: *Amatatu!* (Tabakoaren kontsumoa)
-  7 ipuina: *Zabaldu zure besoak* (Elikadura)
-  8 ipuina: *Korrika egin eta kontatzea* (Tentsioa kudeatzea)
-  9 ipuina: *Hitzez hitz* (Botiken erabilera)
-  10 ipuina: *Untxia beti eta beti* (Autorrespetua)

ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK

Animazioak ikusteko, sartu diskoa Telebistarako edo PCrako DVD irakurgailuan. Jolasak, deskargak eta beste eduki batzuk irekitzeko, sartu diskoa PCrako DVD irakurgailu batean eta egin honako bidea: Nire PCa, klikatu ezkerreko botoiarekin DVD Unitatearen ikonoan. Azkenik, klikatu **BESTE EDUKI BATZUK.EXEn**.

© EDEX, 2016. e-mail: edex@edex.es • web: www.edex.es

Egilea: Gladys Herrera Patiño • Ilustrazioak: Carlos Varela

ISBN: 978-84-9726-918-6

DVD honen eduki osoa Jabetza Intelektualeko Legeak eta Zigor Kodeak babestuta dago. Debekatuta dago osorik edo zatika erreproduzitzea, EDEXen idatzizko baimenik gabe.




Solas egiteko ipuinak 6 urtetik 11 urtera bitarteko umeekin familietan eta eskoletan erabiltzeko heziketa baliabidea da. Baliabidearen helburua *Ohitura osasungarriak* sustatzea eta *Trebetasunak* garatzea da. Horretarako, marrazki bizidunen istorioez baliatzen da. Hiru minutu eskaseko iraupena duten istorioak dira, eta protagonistak zenbait ume dira. Istorioak hiru tokitan daude kokatuta: familietan, eskolan eta auzoan.

Mario Kaplúnek hauxe esan zuen: “beti da hobe kontatzea azaltzea baino”. Ipuin batekin imajinatu egin dezakegu, harremanetan jar gaitzke, beste pertsona batzuekin hitz egin dezakegu. Hori da, hain zuzen ere, ekimen honekin lortu nahi duguna: neska-mutikoen ahotsak entzunak izan daitezela eta irribarrez irten daitezela beraien ahoetatik.

Zeuk ere izango duzu hitz egiteko aukera, baina ez beraiek beste, izan ere, belarri bi eta aho bakarra daukazu: hitz egiten duzunaren bikoitza entzuteko.

Solas egiteko ipuinak eskolan eta beste heziketa erakunde ez-arauren batean erabiltzen baduzu, Gida honek informazioa emango dizu programa osoa osatzen duten istorioen gaiei eta argumentuei buruz. Era berean, proposamen didaktiko bat ere eskainiko dizu DVD-ROMean jasotako pasarte bakoitzerako (PCrako jolasak ere baditu).

Familiaren esparruan, bereziki, programaren web orriak, www.solas-egitekoipuinak.net, seme-alabekin konpartitzeko jolas aukera berriak eskainiko dizkizu.



Lagunen eskua

LABURPENA: *Nereak, neska itsu batek, ikusten duen guztia kontatzen du ipuin honetan. Bere lagunak nolakoak diren kontatzen du, eta elkarren antzekoak izan arren, gogokoagoak ditu haien arteko desberdintasunak antzekotasunak baino. Adiskideak eskuko atzamarrak bezalakoak direla dio Nereak: elkarrengandik desberdinak, baina elkarri lotuta. Elkarren antzekoak ez diren adiskideak izatea leiho ugari duen etxea edukitzea bezalaxe da, leiho bakoitzetik munduan gertatzen dena ikuspegi desberdinetatik ikusteko aukera baitago.*

SAIOAREN GARAPENA: Ipuina entzun ondoren, neska-mutilek gogokoen duten atzamarra aukeratu dute. Eskaeizu azal diezazutela zer egiten duten atzamar horrekin. Ondoren, esaiezu atzamar horren eri-mamian marraz dezatela bere aurpegia eta azpian idatz dezatela “NEU”. Berehalaxe, gainerako atzamarretan gogokoen dituzten lau pertsonak marraztu beharko dituzte. Ariketaren helburua ikasle bakoitzak pertsona horiek zergatik aukeratu dituen azaltzea da, eta baita pertsona bakoitzarengandik gehien gustatzen zaiona eta nazkatzen duena azaltzea ere, zergatiak adieraziz. Gero, eskaiezu haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aurki ditzatela. “Zer gertatuko litzateke guztiok berdinak izango bagina?” Galdera horrek lagun diezazuke saioa behar bezala bukatzen.

MATERIALAK:

Lapitza eta
Osasunkume
abestiaren
letra.



Modako otzara

LABURPENA: *Badago oso konponbide garbia zaramaren arazoa konpontzeko: zaramarik ez sortzea. Ipuin honek kontatzen du supermerkatu burutsu batek erosketak otzara batekin egiteko aspaldiko ohitura modan jarri zuela. Zaramak gutxitzen laguntzeko modu erraza.*

SAIOAREN GARAPENA: Ipuina ent-

zun ondoren, esaiezu eskua altxatzeko erosketak egitera joaten direnei eta salgaiak etxera non eraman ez dutenei. Ez utzi taldeari otzara ikusten. Eskuak jaisten dituztenean, esaiezu 1etik 40ra arteko zenbaki bat esateko. Hori egin baino lehen, paper zenbaki bat idatzi beharko duzu zi duzun zenbakia asmatzen du lako jolastokitik otzara besoan

lbalaldia bukatzen duenean, esila, eta etorri berriari galde iezaiozu nola sentutu erantzunaren zergatiak aurkitu behar dituzula. Gainerakoek hautatuak izan balira zer sentituko zuten adierazi beharko dute.

Saioa bukatzeko, esaiezu idazteko egunero zarama gutxiago -batez ere, hondakin plastikoak- sortzeko hautabideak. Baldintza bakarra hautabideak eurek egiteko modukoak izatea da. Egingarriak izan daitezela, alegia.

MATERIALAK: Otzara bat.



Letratxoa

LABURPENA: Elena beldur da. Gurasoei matematikan nota txarrak atera dituela esan behar die. “G”, “gutxiegi” atera duen lehen aldia da eta ez daki nola jokatu behar duen. Tartetxo bat igaro ondoren, gurasoei kontatzera ausartzen da. Harriduraz ohartzen da “g” letrarekin “gutxiegi” ez ezik, “gaitua” ere idazten dela.

SAIOAREN GARAPENA: Entzun arretaz ipuina eta ondoren, erabil itzazu galdera hauek elkarrizketa sortzeko:

Zer deritzozue Elenaren aitari? Zergatik?

Nota txarrak atera al duzu inoiz? Zer gertatu zitzaizun?

Nori eskatzen diozu laguntza eskolan zerbait ulertzen ez duzunean? Zergatik?

Gerta liteke norbaitek laguntzeko inguruan inor ez izatea. Ondorengoa galdetu: Zer egingo luke orduan?

MATERIALAK: Ez da ezer behar.



Automobilek loditzen dute

LABURPENA: Autoek azkarrago eramaten gaituzte. Nora? Lanera edo eskolara, baina baita kutsatzera eta loditzera ere, autoa gehiegi erabiltzen duten pertsonekin gertatzen den moduan. Mikelek bizikleta erabiltzea erabaki du, baina badirudi hiria ez dagoela pentsatuta neska-mutikoentzat.



SAIOAREN GARAPENA:

Entzun arretaz ipuina. Mintza zaitetze gaiari buruz eta ondoren, irten zaitetze kalera, hiru taldetan antolaturik. Hiriaren behatoki bat sortuko dugu. Hasteko, eskolatik hurbil dagoen etorbide batean kokatuko gara kontu handiz. Talde bakoitzari arretaz behatzeko kontuan hartu beharreko galderak emango dizkiozu.

1. taldea: Zenbat lagun dabilta bizikletan? Zenbat dira emakume eta zenbat gizon? Zein adinetakoak dira? Zer arrisku ikusi dute?
2. taldea: Arretaz aztertu espaloiak eta neur ezazue haien zabalera. Zenbat lagun ibiltzen da hortik? Zer deritzozue?
3. taldea: Zenbat auto igarotzen da minutuko? Zein da daramaten lastertasuna? Nola jokatzen dute semaforoetan? Begiratu klaxona erabiltzen duten eta noiz egiten duten. Nolako gasak botatzen dituzte?

Emaiezu tartetxo bat hau guztia egiteko. Gero esan elkarri azaltzeko bildutako datuak eta guztien artean antola dezatela etorbidearen ingurunea hobetzeko plana. Prest dutenean, gonbita egiozu udaleko zirkulazio arduradunari ikasleen proposamenak entzuteko eta lortutako datuak aztertzeke. Lan hau saio bat baino gehiagotan egin daiteke, eta etxeko lanak ere bidal daitezke.

MATERIALAK: Lapitza eta papera.

Harat-honat korrika

LABURPENA: *Pertsonei autoei gertatzen zaiena gertatzen zaigu: azeleragailu bat eta balazta bat ditugu. Baina batzuei ahaztu egiten zaie non dagoen balazta eta, azkenean, zerbaiten aurka jotzen dute. Txakurtxo jostalari batek balazta deskubritzen irakatsiko dio Josuri, egunero-egunero eskolaz kanpo dituen jarduera ugariak geldiarazteko.*

SAIOAREN GARAPENA: Ipuina entzun baino lehen, esaeizu ordutegi bat egiteko. Ikasle bakoitzak berea marraz dezala. Astean zehar egiten dituzten jarduerak zehaztu beharko dituzte ordutegian.

Hori egin ondoren, entzun arretaz ipuina eta galdetu ikasleei Josuri gertatzen zaiona gertatzen ote zaien. Ondoren, esaeizu koadroan agertzen den informazioa aztertzeko eta kontuak egiteko: zenbat ordu ematen duten telebista ikusten, zenbat ordu kirol egiten, zenbat ordu lagunekin jolasten, zenbat ordu ikasten, zenbat ordu eskolatik kanpoko jarduerak egiten, zenbat ordu jaten, zenbat ordu beren burua txukuntzen, eta abar.

Saioa bukatzeko, esan orri beraren atzealdean ariketa bera egiteko etxean, baina oraingo honetan ordutegi onena idatziz: nolako egunak izatea gustatuko litzaikeen. Interesgarria izango litzateke ordutegi hori familiarekin batera egitea, senideek ere ikus dezaten denbora nola antolatzen duten.

MATERIALAK: Igandetik larunbaterako 24 orduko ordutegia, ordenagailuan egingo dena, eta ikasle bakoitzarentzako fotokopiak. Ordenagailurik ezean, orri zuriak eta lapitzak.

Amatatu!

LABURPENA: *Nereak badaki gauzak nola esan. Zailak badirudite ere, beti aurkitzen du gauzak esateko modu zuzena, egokia eta adeitsua. Horrela egin zuen aireportuan aitaren hegaldiaren zain zegoen bitartean, aldamenean erretzen ziharduen emakume batekin. Danik ez zuen sinesten. Berarentzat arras zaila izango zatekeen emakume horri zigarroa itzaltzeko esatea.*

SAIOAREN GARAPENA: Ipuina entzun aurretik, esaiozu taldeari aukietan ohe batean baleude bezala esertzeko, ahoz gora edo mahaia-
ren gainean ahoz behera. Gero, esan begiak itzeko. Irudimenezko ari-
keta bat egingo duzu. Jarri musika giro egokia sortzeko. Guztiek
zigarroaren keari arretaz begiratuko diote, kean pentsatu beharko
dute. Umorea erabili lasai daitezten. Begiak itxita dituztela, esaietu
une horretan dauden lekutik ibil daitezela, kea zein ahotatik irteten
den aurki dezatela, zein ibilbide duen aurki dezatela: nondik sartzen
den, nor ukitzen duen eta zein usain duen. Astiro egin hori guztia.
Gero, esaietu esnatzeko eta bakoitzak
azal dezala non zegoen, norekin zegoen
eta nola sentitu zen. Garrantzitsua da
ikasleen deskribapenak zehatzak
eta doiak izatea.

Ondoren, entzun arretaz
ipaina eta entzuten buka-
tzen duzuenean, galdeiezu
irudimenaz jolastean ikusi
duten pertsona horrekin
Nereak egin zuena egiteko gai
izango liratekeen. Zer gertatuko li-
tzateke hala egingo balute?

MATERIALAK: Musika tresna ezta
lasaitzeko.

Zabaldu zure besoak

LABURPENA: *Mikelek etengabe jaten du: urduri dagoenean, pozik dagoenean, betilun dagoenean, aspertuta dagoenean...*

Horregatik dago hain gizen eta, sendagilearen iritziz, argaldu egin behar du. Amak gosen bakoitzean norbait besarkatzea proposatzen dio. Amak besarkadaz elikatzen garenean gutxiago jaten dugula entzun du. Dibertigarria da, eta oso interesgarria ere bai...

SAIOAREN GARAPENA: Entzun ezazue ipuina. Ondoren, prestatu besarkada-tailer txikitxo bat egiteko behar den guztia. Segidan, ikasle bakoitzak besarkada batek zertarako balio duen azaldu beharko du. Gutxiago jateko balio ote? Eguna argituko du eta ikusiko dugu.

Taldeakide guztiek zutik egon beharko dute. Botaiezazkiezu plastikozko baloiak eta eskaiezu ez ditzatela lurrera erortzen utz. Berotzen direnean, ikasle-kopuru bereko bi talde handi osatu behar dituzte. Guztiek besarkada batez elkartu beharko dute. Diametro txikiena duen taldeak irabaziko du. Zuk neurtu ondoren, epaia emango duzu. Bukatzeko, eskaiezu bikoteka antolatzeko. Ikasle bakoitzak bizkarrean dagokion txartela esekiko du, esaldia buruz behera duela. Bikoteka elkar besarkatuko dute, estu-estu, bikotekidearen bizkarrean dagoen esaldia irakurri eta belarrira esateko moduan.

Jarduera txalotu, eta eser zaitezte besarkadaren ahalmen sendagarriaz hitz egiteko. Gogora ezazu mina, tristura eta kezka sendatzeko balio dutela besarkadek. Agian horregatik, gehiegi jateari uzteko balio dute. Sentipen horiek laguntzen baitute jateari uzten, baita norbaitek erretzeari edo edari alkoholunak edateari utzi nahi dionean ere.

MATERIALAK: Plastikozko hiru baloi handi eta arin, neurketa-zinta, 12 x12 zm-ko txartelak, haria eta esaldi labur lausengaria.

Korrika egin eta kontatzea

LABURPENA: *Pertsona bakoitzari dagokio bere gorputza nork ukitzen duen edo nork ukitzen ez duen erabakitzeko eskubidea. Horregatik sentitzen zen Elena oso gaizki gizon ezezagun batek ipurdia ukitu zionean. Ikaratu egin zen eta negarrari eman zion. Zorionez, bi gauza garrantzitsu egin zituen: korrika egin ihes egiteko eta kontatu laguntza eskatzeko.*

SAIOAREN GARAPENA: Entzun ipuina ikasgelan eta kontuan hartu zer esaten duen taldeak eta nola erantzuten duen entzuten duen bitartean. Ondoren, galde iezaiezu zer iruditu zaien eta saia zaitez erantzunen zergatia aztertzen. Eskaiezu eman ditzatela kontakizun honetako pertsonaiei buruzko iritzia: Zer deritzote gizon ezezagunari? Zer deritzote Elenak egindakoari? Zer deritzote Elenaren amari? Gogora ezazu bi belarri dituzula gauza asko entzuteko eta aho bakarra gutxi mintzatzeko. Antzeko pasadizorik ezagutzen badute, eskaiezu kontatzeko. Bukatzeko, azken galdera bat: Zer egingo zenukeen Elena izan bazina?

MATERIALAK: Ez da ezer behar.

Hitzez hitz

LABURPENA: *Daniren amigdalitisa okertu egin zen medikuak agindutako antibiotikoa ez zuelako garaiz eta behar besteko dosian hartu. Beste kontsulta baten ostean, hitzez hitz jarraitu zituen medikuaren aginduak. Arriskuan jarri zuen bere ikasgelako ordena, baina bere osasuna eta txapelketako finala arriskutik kanpo utzi zituen.*

SAIOAREN GARAPENA: Ipuina entzun aurretik, “Simonek hauxe dio” jokoan jolastuko zarete. Jarri biribil batean, zutik, eta Simonek esaten duena bete beharko dute ikasleek. Emaiozu erritmoa eta zirra-ra jokoari. Simonek guztiok eskuineko eskua bizkarrean jartzeko dio. Simonek inork arnasarik ez hartzeko dio. Simonek guztiok arnasa hartzeko dio. Simonek guztiok lurrean etzateko dio. Jarri zutik.

Biribiletik irtengo dira zutik jarri zirenak. “Simonek hauxe dio” esaten denean bakarrik obeditzen da. Jokoan jarraitzen dute... Simonek guztiok mingaina ateratzeko dio. Simonek mingaina gordetzeko dio. Simonek hamar salto emateko dio. Jaitsi eskuineko eskua. Une honetan guztiak eduki behar dute eskuineko eskua bizkarrean; eskuineko eskua jaitsi dutenek, beraz, jokotik irten beharko dute.

“A” letrarekin hasten diren izenak dituzten horiek kukubilko jartzeko dio Simonek. Kukubilko jarrita daudenek “miau” egiteko dio. Simonek kukubilko ez daudenek “hau” egiteko dio. Guztiak isiltzeko dio Simonek. Kukubilko daudenak altxa daitezela dio.

Jokoan jardun ezazu grazia duen bitartean. Gero, esaeizu esertzeko eta solas egiteko: nor aintzat hartzen duten eta nor ez. Azal ditzatela zergatiak. Entzun ipuina eta solas egin ikasleen sendagileez. Noiz izan zen sendagilearenera joan ziren azken aldia? Zergatik? Sendagileak esandakoa bete zuten?...

MATERIALAK: Ez da ezer behar.



Untxia beti eta beti

LABURPENA: *Danik untxi-hortzak ditu eta ikaskideek adarra jotzen diote. Entrenatzaileak hortz-handia izatea ez dela bere errua azaltzen dio. Bestela izango litzateke hortzak garbituko ez balitu eta "bakailao" deituko baliote. Sudurluzea, txikia edo belarri-handia izatea ez dago gure esku. Txukuna izatea, ordea, bai.*

SAIOAREN GARAPENA:

Ipuina entzun ondoren, hobeto ezagutuko dugu elkar. Bakoitzak bere aurpegia ispiluan ondo aztertu ondoren, gogokoen duen zatia aukeratuko du. Gero, txandaka, zati hori zergatik aukeratu duen azaldu beharko du. Ondoren, ariketa errepikatuko dute, baina oraingo honetan, gutxien gustatzen zaien zatia aukeratu beharko dute ikasleek, eta zergatik azaldu. Daniri gertatu zitzaien bezala, adarra jotzen dietenean bakoitzak sentitzen duenaz hitz egin ahal izango dute.

MATERIALAK: Ispilu txiki bana.



Abestia



Gure mixina

*Baga-biga, hiru eta lau
katua ari da miau eta miau
esnea utziko du baina
ez du egingo barau.*

*Bostarekin sei eta zazpi
ez dabil gure katua gaizki.
Aurrena begia ireki
eta dena irentsi.*

*Zazpigarrenarekin zortzi
ez dio sobera iritzi.
Gerokoak geroko utzi
eta ezpainak igurtzi.*

*Zortzi eta bat bederatzi
ikastolara zaigu iritsi.
Tripak eragin die gora
eta ezin du ikasi.*

*Osasunkume, gure mixina
entzun ezazue ipuina.*

*Osasunkume, gure mixina
eta talo burdina.*

*Bederatzi ta gero hamar
gure katua marmar-marmar.
Buru-hanka eta hatzamar
guztiak ditu baldar.*

*Hamarrekin ezin hamaika
komunera doa korrika.
Jolas-garaia dator baina
katuak plasta kaka.*

*Dozenak behar ditu hamabi
haizean dantzan bi zapi.
Katu berak egin dio xapi
bere osasunari.*

*Osasunkume, gure mixina
Hau zen gure ipuina.
Osasunkume, gure mixina
eta talo burdina.*

Solas egiteko ipuinak



Taulak adierazten du 30 pasarteak (osasunaren 12 topikoekin erlazionatuta daude) nola dauden antolatuta bildumako hiru DVDetan.

	TOPIKOAK	1	2	3
BIZITZARAKO GAITASUNAK	AUTORRESPETUA	10		24/26
	ERRONKEI AURRE EGITEA	3	11	22/25
	TENTSIOA KUDEATZEA	8		
	HARREMANETAN JARTZEA	1	12	
	ERABAKIAK HARTZEA		14/15	21/27
OHITURA OSASUNGARRIAK	BOTIKEN ERABILERA	9		
	ALKOHOLAREN KONTSUMOA		18	
	TABAKOAREN KONTSUMOA	6	17	29
	JARDUERA ETA ATSEDENA	5	13/19	23/30
	ELIKADURA	7	20	
	SEGURTASUNA	4	16	28
	HIGIENEA	2		

Solas egiteko ipuinak baliabidearen helburua da
6 urtetik 11 urtera bitarteko umeen artean
Ohitura osasungarriak sustatzea eta
Trebetasunak garatzea, solasaldia eragiten duten
istorio laburretan oinarrituta.

Esku artean daukazun gida didaktikoaren helburua
neska-mutikoen taldeen hezitzaileen lana erraztea da,
bai eskola eremuan zein eskola eremutik kanpo, eta,
horretarako, jarduera bat proposatzen du ipuin
bakoitzari lotuta.



www.solasegitekoipuinak.net